

PRENTSA OHARRA: 2019.06.24

Euskal Herriko hamabost ekoizpen etxe Sunny Side of the Doc azokan

Aurtengo katalogoak 48 dokumental proiektu jasotzen ditu.

Sunny Side of the Doc dokumentalen nazioarteko azoka garrantzitsuenetariko bat da eta bertan izango da beste urtebetez euskal ikus-entzunezkoen sektorea Eiken (ikus-entzunezkoen klusterra), Zineuskadi eta Etxepare Euskal Institutuak sortu eta bultzatutako *Basque Audiovisual* izenpean.

Topagune garrantzitsua da ikus entzunezko profesionalentzat. Izan ere, 60 herrialdetako 2000tik gora profesional batzen ditu urteko. Ekainaren 24etik 27ra bitartean Arroxelan (Frantzia) izango da, eta banatzaile, erosle, sortzaile eta ekoizleak hartuko dute parte haien dokumentalak ezagutzera eman eta kanpoko merkatuetara sartu, finantzaketa lortu, lankidetzarako bazkideak bilatu edota sektoreko joera berrienak ezagutzeko helburuarekin.

Horregatik, azoka topaketa ezin hobea da euskal ekoizpen etxeentzat. Euren dokumental proiektuak ezagutzera emateko eta nazioarteko merkatu nagusietako profesionalengana eta balizko erosleengana iristeko aukera eskaintzen baitu.

Aurtengo Sunny Side of the Doc-eko azokan aurkitu daitezkeen Euskal Herriko 15 ekoizpen etxeak honako hauek dira: Arena Comunicación, On Produksioak, Gastibeltza Filmak, Media Attack, Sonora Estudios, Haruru Filmak-Kooperatiba, Komiki Films S.L., Pimpi & Nella Films, Eman Films, Fascina Producciones, Taiu Media S.L., Maluta Films, Tentazioa Produksioak, Sincro Producción eta Brisney S.L. Gainera, urtero Donostia Zinemaldian Ibaiak (Ikus-Entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkartea) antolatzen duen Lau Haizetara Dokumentalen Koproduksio Foroaren ordezkartza ere bertaratuko da.

Basque Audiovisual standean aipatutako produkzio etxeen ordezkariak eta Etxepare Euskal Institutuako, Eikeneko eta Zineuskadiko ordezkariak arituko dira elkarlanean. Urtero bezala, aurten ere euskal dokumental proiektuak biltzen dituen katalogoa banatuko da standean. 48 lan dira guztira: 16 garapen prozesuan daude, 13 ekoizpen prozesuan eta 19 bukatuta.

Ikus-entzunezko sektoreari ikusgarritasuna eman eta marka indartzea du helburu egitasmoak. Horrela, atzerriko merkatuetan produktuen berrikuntza eta kalitateari esker ezaguna izan dadin.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileak plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus
www.etxepare.eus